

Azaroaren 25ean

## **JESU KRISTO GURE JAUNA, DIREN GUZTIEN ERREGA**

### **Agurra**

Kristo, diren guztien Errega, gerta dakizuela bake eta salbamen eta Haren maitasuna izan bedi zuekin.

### **Sarrerako oharpena**

Liturgi-urteari amaiera emanez Kristo Erregaren jaia ospatzen dugu gaur. Bera da gure historiaren erdi-muina; Berarengana goaz, Bera dugu helmuga.

Gaur Bere mahaian biltzen gaitu, Bere artzain-jarrera, Bere zerbitzu gogoa, Bere maitasun gozoa geure egin ditzagun. Eta egun batean, Berari leial jarraitzen saiatzen diren guztiak amaigabeko mahaian bilduko ditu zeruko erreinuan. Berari aintza eta gorespen!

### **Damu-otoitza**

Gurutzea du Kristok Bere errege-aulkia. Berari begiratuz, eska diezaiozun gure bekatuen barkamena.

- Jesus Jauna, gizaki guztien Salbatzaile zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gu guztiontzat gizatasun eredu zarena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, guztion bihotzak Zuregana erakartzen dituzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

## Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
 zure Seme maitea, diren guztien Erregea,  
 gauza guztien oinarri eta buru ezarri zenuen;  
 egizu, izaki guztiek,  
 bekaturen uztarritik askatuta,  
 beti eta beti Zu zerbitza zaitzatela eta goretsi.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitza da kristauon egitasmo nagusia jasotzen dituenena. Entzun dezagun arretaz, eta jakin dezagun Erreinua gureganatzea bihotz berriz bizitzea dela.

## Lehenengo irakurgaia (*Dn 7, 13-14*)

Daniel profetaren liburutik

Begira nengoela, gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen, zeruetako hodeitan zetorrela. Gizon zaharrarengana hurbildu zen, eta haren aurrean aurkeztu. Agintaritza, ospea eta erregetza eman zitzaizkion; eta herri, herrialde eta hizkuntza guztiak zerbitzari zituen. Haren agintea, betiereko agintea da, inoiz ere amaituko ez dena; eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

## Erantzun-salmoa (*Sal 92, 1ab. 1cd-2. 5*)

Zu za - ra, Jau - na, gu-re Erre - ge.



Errege da Jauna, jantzi da handikiro;  
jantzi da Jauna, indarra du gerriko. R/.

Lurbira Berak jarri du sendo,  
eta ez da kolokatuko.  
Sendo dago betidanik zure aulkia,  
Zu betidanik zara. R/.

Zure aitormenak oso sinesgarri dira:  
zure etxeari santutasuna dagokio, Jauna,  
gizaldien gizaldietan. R/.

### Bigarren irakurgaia (Apk 1, 5-8)

Apokalipsi liburutik

Grazia zuei eta bakea, Jesu Kristo testigu zintzoen izenean, hilen arteko lehen semearen eta munduko erregeen nagusiaren izenean. Gu maite izan gaituenari eta, bere odolaz, gure bekatuetatik garbitu gaituenari, errege leinu eta Jaungoiko bere Aitaren apaiz egin gaituenari: aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Begira, badator hodeietan; begi guztiek ikusiko dute, baita Bera zulatu zutenek ere; eta Harengatik negar egingo dute bular-joka, lurreko herri guztiek. Bai. Amen.

Honela dio Jainko Jaunak: Ni naiz alfa eta omega; baden eta bazen eta badatorrena, Ahalguztiduna.

### Aleluia (Mk 11, 10)





Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!  
 Bedeinkatua, gure aita Davidengandik  
 datorren erreinua! R/.

### Ebanjelioa (Jn 6, 24-35)

#### Homiliarako argibideak

*Haren erregetzak ez du azkenik izango*

Telebista piztu besterik ez dago, gizakien artean gerra bizia, sarraskiak eta gorrotoa askotan nagusitzen direla ikusteko. Estatu Islamikoaren gerran bertan ez dago fronte zehatzik, baina biktima errugabeak hiltzen ditu. Estatu bat indarkeriaz eta herritarren borondatearen kontra sortu nahiak porrota bakarrik dakar. Jainkoaren Erregetzak bakarrik du etorkizunik, gizakiaren benetako errealitateari erantzuten baitio (Dn 7,13-14). Erregetza hori Jaun berpiztuaren Erregetza da, “bidea, egia eta bizia”. Ez da beste erregetzen mugek zehaztutako lurralde bat. **Erregea Jainkoa** izatea baizik. Eta Jainkoa izanik errege, ezin du beste botere batek errege izan, eta Jainkoaren eskubideak lapurtu. Jainkoa denean errege, justizia, egia maitasuna eta bakea ezartzen dira.

Jesusek “nire erregetza ez da mundu honetakoa” (Jn 18,33-37) dioenean, ez da beste mundu bateko edo hodeietako erregetza batean pentsatzen ari. Boterea beste modu batean erabiltzeaz ari da, boterea zerbitzu izateaz. Besteak zerbitzatzeko, ez da behar bizimodu hori indarrez ezarriko duen armadarik. Bete ezineko utopia irudituko zaie askori, armadarik gabeko herrialde bat bezala. Horregatik, hainbeste espiritualizatu dute askok Kristoren erregetza,

non azkenean desagertu egin den giza gaien eremutik. Gizakien arazoak axola ez zaizkion kristautasun bat sortzen du, gizakiak mundu honetako botereen mende geratzen baitira. Horren guztiz kontrakoa egiten saiatzen den Kristo Jainkoaren erregetzaren etorrera iragartzen zuenean. Jainkoaren esku-hartzea agintzen zuen, giza harremanetan **justizia eta bakea** ezartzea.

Gobernatzeko modua da Kristoren erregetza eta gainerako erregetzak edo errepublikak bereizten dituen. Egiaren bidez gobernatzen da, ez indarrez. Mundu honetako agintariek nasi-egiak edota gezurrak erabiltzen dituzte askotan mendekoak erakartzeko. Beste batzuetan, atsegin eman behar diete mendekoei, iritzi publikoaren inkestei jarraituta, erabakiek gizakiari eta bake sozialari laguntzen dioten kezkatu gabe. Herrialde libre baten ikurtzat jotzen da bakoitzak nahi duena egin ahal izatea. Hauxe esan zuen Jesusek, ordea: “egiak aske egingo zaituzte”. Egiaren lekukotza ekartzera etorri zen Hura. Agintari erlijiosoen eta zibilen aurreak aldarrikatzeak bizia arriskuan jartzera eramanez.

Jesusek iragartzen digun egia ez da Unibertsitatean edo liburuetan ikas daitekeen proposamen abstraktu multzo bat. **Bere pertsona propioa** da. Egiari uko egin izana edo egia gehiengoaren iritziarekin edo gizarte-makineriarekin identifikatzea da gure kulturaren arazoa da. Pertsonen edo gauzen egiak ez du axola, sistemak disfunczio handirik gabe funtzionatzeak baino ez. Horixe egin zuen Pilatok ere, eskuak garbitu egiaren edo pertsonaren errugabetasunaren arazoaren aurrean. Bere karguari eustea, juduei atsegin ematea eta Erromako boterearekin jokatu ezin daitekeela erakustea inporta zitzaion hari, Legearen zama guztia pertsonen gainera botatzen baitu horrek.

Egiaren indarra berez nagusitzen da, ordea. Horregatik aitortzen dugu kristauok Jesus gure Jaun bakar, eta hark erakartzen gaitu Berarengana, gure Errege aitortzen dugunarengana. Ez zuenez sekula

arrakasta hutsa bilatu, hura gurutzean hiltzea ez zen izan gizakiaren porrota, **Aitaren maitasunaren errebelazioa** baizik, Erregetzako herritar bihurtzen baikaitu. Egiatzko, justiziazko, maitasunezko eta graziazko Erregetza hori ospatzen dugu eukaristia bakoitzean, egun batean behin betiko etorriko zain.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Zuzen diezakiogun gure otoitzak Kristori, Bera baita gauza guztien Jauna eta Erregea:

- Elizako artzain eta kide guztiak saia daitezela beti gizadi osoa Jainkoarengana gerturatzen eta Kristoren gurutzeaz denei bake-bidea eskaintzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Erljio eta kultura guztietan ezkutuan dagoen Ebanjelioaren haziak frutu eman eta ager dadin, guztiak ezagutu dezaten Kristo dela Jauna Jainko Aitaren aintzarako. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bekatuak, atsekabeak edo ezinak harrapatuta dauden guztiak Kristoren erreinuko askatasuna ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gaur Kristo Erregearen festaburua ospatzen dugun guztiok izan dezagula egun batean zeruko oinordekotza, argiaren erreinuan. Eska diezaiogun Jaunari.

Guraso zaitugun Jainkoa, Zuk bidali duzu Zure Semea bere Erreinua gure artera ekartzera; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure argia Zure zerbitzuan errege izan gaitzen eta leialtasunez aldarrika dezagun Kristo dela diren guztien Erregea, hilen artetik lehenik piztua. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

## **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Betiereko biziaren ogia harturik, Jauna,**

**Zuri deiez gaude:**

**Kristo zeru-lurren Erregearen aginduak betetzea**

**aintzagarri daukagunok**

**iritsi dezagula**

**Berarekin zeruetako erreinuan beti bizi.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

